## SAKANAKO MANKOMUNITATEKO EZ-OHIKO BATZAR OROKORRA 2024-10-14

Lakuntzan, bi mila eta hogeita lauko abenduaren hamabian, arratsaldeko sei terdiak direnean Aitor Larraza Carrera buru duen Batzar Orokorra Bildu da Mankomunitateko egoitzan.

Batzarkide hauek izan dira bileran:

Bertaratuak

1. Asier Gartziandia Ormaetxea (Miriam Mendikute ordezkatzen).
2. Ana Balda San Juan.
3. Jose Domingo Huarte Baleztena.
4. David Oroz Alonso.
5. Alfonso Nuin Cortijo.
6. Aitor Larraza Carrera.
7. Arkaitz Errazkin Beltza.
8. Maria Saez de Albeniz Bregaña.
9. Gorka Ovejero Gamboa.
10. Oihana Olaberria Jaka.
11. Unai Razkin Iriarte.
12. Francisco Javier Razquin Flores.
13. Oihane Uribeetxebarria Garmendia.
14. Joseba Vizuete Azkargorta.

Badaude ere Idazkaria, Urtzi Nazabal Goñi, Mankomunitateko hondakin teknikaria den Olatz Garde Mazkiaran eta Mankomunitateko Kudeatzailea, Maria Balda Galan.

## SESIÓN EXTRAORDINARIA DE LA ASAMBLEA GENERAL DE LA MANCOMUNIDAD DE SAKANA DE 14-10-2024

En Lakuntza a doce de diciembre de dos mil veinticuatro, cuando son las seis y media de la tarde, presidida por el presidente de la Mancomunidad Aitor Larraza Carrera se ha reunido la Asamblea General en la sede de la Mancomunidad.

Estas son las asistentes a la sesión:

Asistentes

1. Asier Gartziandia Ormaetxea (en representación de Miriam Mendikute).
2. Ana Balda San Juan.
3. Jose Domingo Huarte Baleztena.
4. David Oroz Alonso.
5. Alfonso Nuin Cortijo.
6. Aitor Larraza Carrera.
7. Arkaitz Errazkin Beltza.
8. Maria Saez de Albeniz Bregaña.
9. Gorka Ovejero Gamboa.
10. Oihana Olaberria Jaka.
11. Unai Razkin Iriarte.
12. Francisco Javier Razquin Flores.
13. Oihane Uribeetxebarria Garmendia.
14. Joseba Vizuete Azkargorta.

También se encuentran presentes el Secretario, Urtzi Nazabal Goñi, la técnica de residuos de la Mancomunidad, Olatz Garde Mazkiaran, y la gerente de la Mancomunidad, Maria Balda Galan.

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA, HALA BADAGOKIO.**

Ez da irakurri 2024ko abuztuaren 8ko ohiko bilkurako akta, batzarreko kideek aktaren fotokopia baitute, bilkura honen deialdiari erantsitako dokumentazio gisa.

Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91. artikuluan aurreikusitakoa betez, presidenteak bertaratuei galdetu die ea oharrak egin nahi dituzten deialdian banatutako aktari buruz.

Oharrik egin ez denez, ontzat eman da.

**2.- TOKIKO INBERTSIOEN PLANA. TOKIKO INBERTSIOEN PLANEAN BEHIN BETIKO SARTZEKO ESKAERA ETA ARBIZUKO FERNANDO URKIA KALEAN SAREAK BERRITZEKO ETA ZOLADURA JARTZEKO PROIEKTUA ONARTZEA**

Lehendakariak azaldu du aurrekontuei begira proiektu honen kostua 105.000€koa izango dela, eta honi aurre egiteko 75.000€ko diru laguntza izango duela Mankomunitateak.

Lehendakariak tokiko inbertsioen planean behin betikoz sartzeko eskaera egiteko baldintzetako bat proiektua egina egon behar zuela adierazi die batzarkideei. Ez ohiko batzarrera deitu izanaren arrazoia proiektua egiteko epe aldetik izan diren larritasun eta zailtasunak izan direla argitu du, eta beraz, Arbizuko Fernando Urkia kalean sareak berritzeko eta zoladura jartzeko proiektua onartzea proposatu du. Proiektuaren onarpena aho batez onartu da. Proiektua onartu ondoren, tokiko inbertsioen planean behin betikoz sartzeko eskaera egitea proposatu du Lehendakariak, eta hau ere aho batez onartu da.

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.**

No se ha leído el acta correspondiente a la sesión ordinaria anterior de fecha 8 de agosto de 2024 por disponer los y las miembros de la asamblea de fotocopia de la misma.

En cumplimiento de lo previsto en el artículo 91 del Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y de Régimen Jurídico de las Entidades Locales, el presidente pregunta a los asistentes si desean formular observaciones al acta distribuida en la convocatoria.

No realizándose observaciones, se aprueba el punto por asentimiento.

**2.- PLAN DE INVERSIONES LOCALES. APROBACIÓN DE LA SOLICITUD DE INCLUSIÓN DEFINITIVA EN EL PLAN DE INVERSIONES LOCALES Y PROYECTO DE RENOVACIÓN DE REDES Y PAVIMENTACIÓN EN LA CALLE FERNANDO URKIA DE ARBIZU**

El Presidente informa que el coste presupuestario de este proyecto es de 105.000€, y que la Mancomunidad cuenta con una subvención de 75.000 €.

El presidente ha trasladado a los asistentes que uno de los requisitos para solicitar la inclusión definitiva en el plan de inversiones locales es que el proyecto debe estar redactado. Aclara que el motivo de la convocatoria a la asamblea extraordinaria ha sido la dificultad que ha habido en cuanto al plazo para la redacción del proyecto, por lo que propone la aprobación del proyecto de renovación de redes y pavimentación en la calle Fernando Urkia de Arbizu. La aprobación del proyecto se ha aprobado por unanimidad. Una vez aprobado el proyecto, el presidente propone solicitar su inclusión definitiva en el Plan de Inversiones Locales, que también se aprueba por unanimidad.

**3.- SAKANAKO MANKOMUNITATEKO ENERGIA-KOMUNITATEAREN MOZIOAREN ONARPENA.**

Lehendakariak azaldu du Sakanako Mankomunitateko energia-komunitatearen mozioa onartzeko proposamenak atal ezberdinak barnebiltzen dituela. Horien artean honako hauek:

- Sakanako Mankomunitatea energia komunitatearen bazkide kolaboratzaile izatea onartzea.

- Energia komunitatearen estatutuen onarpena.

- Energia komunitatean sartzeko 300€ko hasierako ekarpena onartzea.

- Aitor Larraza Carrera, Sakanako Mankomunitateko lehendakaria, energia-komunitateko ordezkaria izatea onartzea.

Lehendakariak batzarkideei Sakanako Mankomunitateko energia komunitatearen mozioa onartzea proposatu du eta aho batez onartu da.

**4.- 10. ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA ONARTZEA.**

Lehendakariak aurretik aipatu duen bezala Sakanako Energia Berriztagarrien Komunitateko kide izateko, 300 euroko ekarpen bat egin beharko du Mankomunitateak. 2024ko ekitaldirako onartutako aurrekontuan ez dagoenez gastu hori jasotzeko aurrekontu-aplikaziorik, beharrezkoa da aurrekontua aldatzea. Egingo den aldaketa ezohiko kredituaren aldaketa bat da, hau da, gastu espezifiko eta jakin bat egiteko kreditua esleitzen den gastu-aurrekontuaren aldaketa, hurrengo ekitaldira arte atzeratu ezin dena eta krediturik ez duena.

Horrela, gastuen kapituluan 6 4250 78900 "Komunitate energetikorako ekarpena" partida sortuko da 300 euroko kredituarekin. Aldaketa 6 9340 310001 “Kredituaren interesak” aurrekontuko aplikazioren kontura finantzatuko da.

**3.- APROBACIÓN DE LA MOCIÓN DE LA COMUNIDAD ENERGÉTICA DE LA MANCOMUNIDAD DE SAKANA.**

El presidendte explica que la propuesta de aprobación de la moción de la comunidad energética de la Mancomunidad de Sakana incluye diferentes apartados. La moción incluye:

- Aprobar a la Mancomunidad de Sakana como socio colaborador de la comunidad energética.
- Aprobación de los estatutos de la comunidad energética.
- Aprobar una aportación inicial de 300 €para el ingreso de la energía en la comunidad.
- Aprobar a Aitor Larraza Carrera, presidente de la Mancomunidad de Sakana, como representante de la comunidad energética.

El presidente ha propuesto a los asistentes la aprobación de la moción de la comunidad energética de la Mancomunidad de Sakana y se ha aprobado por unanimidad.

**4.- APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA Nº 10.**

Para formar parte de la Comunidad de Energías Renovables de Sakana, tal y como ha señalado anteriormente el presidente, la Mancomunidad deberá realizar una aportación de 300 euros. Dado que en el presupuesto aprobado para el ejercicio 2024 no existe una aplicación presupuestaria que contemple dicho gasto, es necesario proceder a su modificación. La modificación que se va a realizar es una modificación del crédito extraordinario, es decir, del presupuesto de gastos en el que se asigna crédito para la realización de un gasto específico y determinado, que no puede demorarse hasta el ejercicio siguiente y que carece de crédito.

Así, en el capítulo de gastos se creará la partida 6 4250 78900 "Aportación a la comunidad energética" con un crédito de 300 euros. La modificación se financiará con cargo a la aplicación presupuestaria 6 9340 310001 "Intereses de crédito".

Lehendakariak 10. Aurrekontua aldatzea proposatu du azalpenak eman ondoren eta aho batez onartu da 10. Aurrekontu aldaketa.

El presidente propone una modificación de la partida presupuestaria nº 10, y tras las explicaciones otorgadas, se aprueba por unanimidad la modificación presupuestaria nº 10.

**5.- SAKANAKO IBILBIDE ZIKLABLEAREN OBRARAKO PLEGUEN ONARPENA ETA KONTRATAZIO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA ONARTZEA.**

Sakanako ibilbide ziklablearen obrarako pleguak deialdiarekin batera bidali zitzaizkien batzarkideei. Lehendakariak azaldu du ibilbide ziklablearen obra lizitazioa argitaratzeko, plegua eta espedientearen hasiera batzarrak onartu behar dituela. Horrez gain, pleguak aldaketaren bat izan dezakeela argitaratu baino lehen azaldu du, izan ere, obrako zuzendariaren aldaketa proposamenen zain baigaude momentu honetan.

Jarraian lehendakariak Sakanako ibilbide ziklablearen obrarako pleguen eta espediente hasiera onartzea proposatu du eta aho batez onartu dira.

**5.- APROBACIÓN DE LOS PLIEGOS PARA LA OBRA DE LA VÍA CICLABLE DE SAKANA E INICIO DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN.**

Los pliegos para la obra del recorrido ciclable de Sakana fueron remitidos a los miembros de la asamblea junto con la convocatoria. El presidente expone que para la publicación de la licitación de la obra de la vía ciclable, el pliego y la iniciación del expediente deben ser aprobados por la Junta. Además, explica que el pliego puede tener alguna modificación antes de que se publique, ya que en este momento estamos pendientes de las propuestas de modificación del director de obra.

A continuación el presidente propone aprobar los pliegos y el inicio de expediente para la obra de la vía ciclable de Sakana, que se aprueban por unanimidad.

**6.-11. ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA ONARTZEA**

Sakanako Mankomunitateak 2023ko abenduaren 14an egindako Batzar Orokorrean 2024ko ekitaldirako aurrekontua onartu zuen. Bertan sartuta dago 8 4530 6500001 "ibilbide ziklablea" aurrekontu-aplikazioa, 1.950.000 euroko kredituarekin, baina kreditu hori ez da nahikoa, osotara proiektuaren gastua hori baino handiago da eta . Aurrekontuan egin behar den aldaketa kreditu-gehigarriaren aldaketa da. Kreditu-gehigarria da gastu-aurrekontuaren aldaketa bat, eta haren bidez kreditua esleitzen da, gastu berariazko eta zehatz bat egiteko, hurrengo ekitaldira geroratzen ahal ez dena eta krediturik ez duena.

**6.-APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA Nº 11.**

La Mancomunidad de Sakana en la Asamblea General celebrada el 14 de diciembre de 2023 aprobó el presupuesto para el ejercicio 2024. En el mismo está incluida la aplicación presupuestaria 8 4530 6500001 " vía ciclable" con un crédito de 1.950.000 euros, pero dicho crédito resulta insuficiente ya que el gasto final del proyecto va a ser superior. La modificación presupuestaria que se va a realizar es una modificación de suplemento de crédito. Suplemento de crédito es aquella modificación del presupuesto de gastos mediante la que asigna crédito para realizar un gasto específico y determinado cuando el crédito previsto inicialmente resulta insuficiente y no puede ser objeto de ampliación.

Lehendakariak azaldu du kasu honetan, 8 4530 6500001 " ibilbide ziklablea" 492.841,83 eurotan handituko dela. Aldaketa hori Turismo Saila eta Garraioa eta Mugikortasun Sailetik jasoko diren dirulaguntzekin finantziatuko da.

El presidente ha explicado que en este caso, la "vía ciclable" 8 4530 6500001 se incrementará en 492.841,83 euros. Esta modificación se financiará con las subvenciones que se reciban de los Departamentos de Turismo y de Transportes y Movilidad.

**7.- LEHENDAKARIAREN INFORMAZIOAK.**

Lehendakariak adierazi die batzarkideei 2025 urteko aurrekontuei begira Sakanao Mankomunitateak azaroaren erdialdera bidaliko diela udalei lehen zirriborroa. Horrez gain, abenduko Batzar Orokorreara eramngo direla aurrekontuak hauen onarpenerako adierazi du.

Aurrekontuen harira, partzuergotik zabor tasaren igoera bat egongo dela ziurrenik adierazi du lehendakariak, eta beraz, Sakanako Mankomunitateak ere zabor tasaren igoera eta ur tasaren igoera proposatuko duela adierazi du.

Azkenik Sakanako Mankomunitateko kudeatzaile den Maria Baldak, Mankomunitateko langileen estabilizazio prozedura ze egoeretan aurkitzen den azaldu du.

**7.- INFORMACIONES DEL PRESIDENTE.**

El presidente informa a los asistentes que de cara a los presupuestos de 2025 la Mancomunidad de Sakanao enviará a mediados de noviembre a los ayuntamientos el primer borrador. Asimismo, señala que los presupuestos se trasladarán a la Asamblea General de diciembre para su aprobación.

En cuanto a los presupuestos, el lehendakari ha señalado que probablemente habrá un aumento de la tasa de basura desde el consorcio, por lo que la Mancomunidad de Sakana también planteará un incremento de la tasa de basura y un aumento de la tasa de agua.

Por último, la gerente de la Mancomunidad de Sakana, María Balda, ha explicado la situación en la que se encuentra el procedimiento de estabilización del personal de la Mancomunidad.

**8.- ERREGUAK ETA GALDERAK**

Etxarri Aranatzeko ordezkari den Arkaitz Errazkin Beltzak Donostiko udalari zabor eta uraren tasa %50 igotzea behartzen dion sententziak Sakanako Mankomuntateari edo Nafarroako udalei eragin diezaioken galdetu du. Lehendakariak azaldu du sententzia horrek ez diola Mankomunitateari eragingo, izan ere, Sakanako Mankomunitateak ur eta zabor biulketaren zerbitzuak tasen bitartez kubritzen ditu eta Mankomunitateari dagokio gestio hori, Donostiko udalaren kasuan gertatzen ez den bezala.

**8.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

Arkaitz Errazkin Beltza, representante de Etxarri Aranatz, ha preguntado si la sentencia que obliga al ayuntamiento de San Sebastián a subir un 50% la tasa de basura y agua puede afectar al Mankomuntate de Sakana o a los ayuntamientos navarros. El presidente ha explicado que esta sentencia no afecta a la Mancomunidad, ya que la Mancomunidad de Sakana cubre los servicios de viulación de agua y basura a través de tasas, una gestión que corresponde a la Mancomunidad, a diferencia de lo que ocurre en el caso del Ayuntamiento de San Sebastián.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko seiak eta hogeita bat minutu direla, lehendakari jaunak bilkura amaitu du.

Nik, idazkariak, akta hau jaso eta fede ematen dut.

Y no habiéndose más temas que tratar, siendo las seis y veintiún minutos de la tarde, el señor presidente levanta la sesión.

Yo, la Secretaria, levanto la presente acta y doy fe.